

**BERMEOKO UDALAREN BERDINTASUN PLANA EXEKUTATU ETA EKINTZAK
GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK**

1. Artikulua: XEDEA

Kontratuaren xedea hurrengoa da: Bermeoko Udalaren Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzearen zerbitzu kontratua.

2. Artikulua: ZERBITZUAN ZERTAN DATZA

Kontratu honen helburu nagusia da Bermeoko Udaleko Berdintasun Planean zehaztutako ekintzak aurrera eramane, egokitu, eta, exekutatu ondoren, emaitzak ebaluatzea. Horretarako, udal barruko sailen koordinazioa eta Bermeoko talde eta eragileen partaidetza sustatuko da.

Helburu nagusia lortzeko, hurrengoak egin beharko dira:

- 1.- Planean zehaztutako ekintzak aurrera eramateko beharrezko antolaketa eta exekuzioaz arduratu.
- 2.- Udalaren berdintasun politikak, protokoloak, prozesuak eta irizpideak proposatu.
- 3.- Herrian egon daitezkeen egoera propioak identifikatu, ikertu, estatistikak egin eta, parekidetasun eza gainditzeko, neurriak diseinatu eta exekutatu.
- 4.- Herrian egon daitezkeen sexuagatiko diskriminazio egoerak antzeman eta ezabatzeko neurriak proposatu.
- 5.- Parekidetasun ezaren gaineko eta berdintasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurrien inguruko sentsibilizazio kanpainak egin.
- 6.- Genero ikuspuntua barneratzeko egiturak, programak eta prozedurak sortu edota moldatu.
- 7.- Berdintasunarekin lotuta irteten diren diru-laguntza ezberdinak eskatzeko asistentzia eman.
- 8.- Udalean berdintasunari buruzko legediak ezarritakoak betetzen direla egiaztatu eta jarraipena egin eta, hutsuneak ikusi ezker, proposamenak egin.
- 9.- Udalean berdintasuna zeharkakotasunaz lantzen eta integratzen dela ikuskatzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea. Horretarako, sail ezberdinetako lana, prozedurak eta funtzionamendua ikusi eta aztertu beharko dira.
- 10.- Berdintasunerako Kontseilu feministaren idazkaritza lanak egin eta kontseilua dinamizatu.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004E02800P8H0Y3Z9V1G2

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 09:45:59

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0007
Data: 15/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



11.- Berdintasunaren inguruan, sortu daitezkeen edozein arazo edo zalantzarri irtenbidea emateko asistentzia eman.

3. Artikulua: ZERBITZUA ZELAN GAUZATU

Ez da beharrezkoa izango lan guzti hauek udal bulegoetan bertan egitea eta esleipendunak lanaren gehiengoa bere egoitzan garatu beharko du, beti ere udalak ezinbestekotzat ematen dituen batzarretan parte hartzea bermatzen bada eta, kontutan edukita, batzar horiek gutxienez astean behin izango direla.

Era berean, antolatzen diren ekintzetan presente egotea behar-beharrezkoa izango da, eta baita gertakizun berezi edo ezustekoetan laguntzeko.

Lana enpresaren egoitzatik beratik egiten den momentuetan, esleipenduna udalarekin komunikatuta egongo da bai telefonikoki bai eta telematikoki ere, eta beharrezkoa den zerbitzu eta sostengua emateko gaitasuna eta prestasuna eduki beharko du, gutxienez bulego ordutegi arruntean (astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara).

Modu horretan zerbitzua era egokian ematen ez dela usteko balitz, udalak askatasun osoa edukiko du eguneroko ordu kopuru gutxiengo bat presentziala izatea agintzeko.

Bertaratze gastuak eta bestelako bidai eta dieta gastuak esleipen prezioaren barruan egongo dira, eta ezingo da esleipen prezioetik kanpo ezelako kontzepturik fakturatu.

Esleipendunak zerbitzu egokia emateko, gutxienez honako baliabide hauek eduki beharko ditu:

- Ordenagailua, interneten konexioa eta harremanetarako helbide elektronikoa.
- Telefono mugikorra.
- Gidatzeko baimena eta ibilgailu propioa.

Baliabide horiek bere gain eta kontura izango dira.

Zerbitzuari buruz eman beharreko aginduak, enpresako arduradunari edo kontratuaren jarraipenerako izendatutako ordezkariari emango zaizkio, eta ez langileari zuzenean. Enpresa esleipenduna izango da langilearen lana zuzendu eta kontrolatuko duena.

Hori horrela, esleipendunak, arduradun edo ordezkariaren izena eta kontakturako bideak zehaztu beharko ditu, horretarako helbide elektronikoa barne.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004E02800P8H0Y3Z9V1G2

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020
09:45:59

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0007
Data: 15/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Enpresa esleipendunak eman beharreko zerbitzua uneoro bermatzeko beharrezko diren langileak eduki beharko ditu eta beharrezko neurriak hartuko ditu, hala nola, langileriaren gaixotasun hutsuneak, oporrak, baimenak, etab. antolatu eta beharrezko ordezkapenak egin. Horretarako izendatzen diren langileak, eskatutako titulazio eta euskara maila daukatela kreditatu beharko da, kasuan kasu.

Langileak esleipendunaren mendekoak izango dira eta haren mendekoak baino ez, Bermeoko Udalarekin enplegu harremanik, ez beste inolako harremanik eduki barik, ez kontratua dirauen bitartean, ez ondoren ere. Horiek horrela, Bermeoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta bere mendeko langileen artean sortutako arazoetan.

Urtearen amaieran, emandako zerbitzuaren memoria eta planaren betetze maila aurkeztu beharko du, eta, kontratua luzatuko balitz, luzapenerako plangintza ere aurkeztu beharko du esleipendunak.

4. Artikulua: SORTUTAKO MATERIALAREN JABETZA

Sortzen den materiala (protokoloak, prozedurak, proposamenak, jarraipen txostenak, etab.), Bermeoko Udalaren jabetzakoa izango da eta ezingo da udaletik kanpo beste ezertarako erabili, ez bada udalak berak horretarako berariazko baimena ematen duela.

5. Artikulua: HIZKUNTZA

Zerbitzua elebitan eman beharko da orokorrean.

6. Artikulua: KAUDIMEN TEKNIKOA

Enpresak bere kaudimen teknikoen bitartez kreditatu beharko du:

- a) Enpresaren plantillan dauden langileen ikasketa-titulak eta profesionalak: zerbitzua garatuko duten langileak, goi-mailako lizentziadunak edo graduatuak izango dira eta gidatzeko baimena eduki beharko dute. Gainera, emakume eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa eduki beharko dute, gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatuta.



- b) Hizkuntza eskakizunak: zerbitzua garatuko duten langileek, lana euskaraz modu egokian gauzatzeko maila nahikoa eduki beharko dutela bermatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia-esparru Komunaren C1 maila edo baliokidea dutela egiaztatu beharko dute.
- c) Bigarren atalean aipatutako betebeharrekin lotura zuzenean, zerbitzu hau garatuko duen enpresak, administrazioan antzeko lanak burutzen hiru urteko eskarmentua eduki beharko du, kontutan izanda administrazioaren izaera, bere funtzionamendua eta berdintasunean daukan eragina handia dela, enpresa pribatuekin alderatuta, eta herritarrengan daukan inpaktuak ere, kudeatze berezia eskatzen duela.
- d) Zerbitzu zehatz hau garatzeko, enpresak dituen baliabide materialen eta pertsonalen deskribapena egin beharko du esleipenerako proposatutakoak kontratua esleitu orduko.

Orri oinean, sinadura eta data.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004E02800P8H0Y3Z9V1G2

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 09:45:59

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0007

Fecha: 15/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

